

Labrazako kontzejuak eta lurraren defentsarako plataformek inguru horretan eraikitzekoa den parke eolikoaren proiektua «berehala geldiarazteko» exijitu eta abenduaren 13rako elkartasun egunera deitu dute. Plataformek haize-erroten egitasmo horren aurka jarritako errekurtsioak ebazpen judizialaren zain daude.

# Labrazako parke eolikoa «berehala geldiarazteko», elkartasun eguna deitu dute

GARA | OION

Labrazako kontzejuak eta Arabako Errioxa Bizirik, Arabako Mendiak Aske eta Araba Bizirik plataformek agerraldi publikoa egin zuten atzo: Labrazako "arkuan" herrian eraiki nahi duten parke eolikoaren inguruan izan diren azken aurrerapen administratiboak salatu zituzten. Oiongo Udaleri «bere erantzukizuna hartu» eta proiektuarekin lotutako «jarduera oro berehala geldiarazteko» eskatu diote.

Proiektuak bizilagunen bizimodu eta bizi kalitatea «arisku larrian» jartzen dituela ohartarazi zuten; «zarata etengabe eta itzal kliskatzailen efektuaren» kaltea nabarmendu zuten, eta Aixeiendar SAK (Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak osatutako sozietateak) sustatutako proiektuaren ingurumen-inkaptua ere salatu zuten: «Baso-soiltze nabarmena, hegaztientzako kalteak eta paisaiaren zein inguruko ekosistemen aldaketa itzulezina eragingo ditu».


**Interes pribatuak** Deitzaileen esanetan, proiektuaren atzean «oligopolio energetikoaren interes pribatuak» daude, plangintza arduratsu bat egon beharrean. Bereziki EH Bilduk Oiongo alkatetzan izandako jarduna azpimarratu zuten. Alderdiari aurpegiratu zioten hasierako aurkako jarrera aldatu izana «orain, tramitazioa errazteko, EAJren eta PPren babesarekin».

Plataformek gogorarazi zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak tramitera onartu dituela aurretiazko administrazio-baimenaren eta plan bereziaren aurka jarritako errekurtsioak.

Gauzak hala, «herritarren eta eragile sozialen aurkakotasuna irmo» mantentzen dela esan zuten eta abenduaren 13an Labrazan elkartasun eguna egingo dutela eta hainbat jarduera izango direla. «Lurraren defentsarako» herritarrei babesa eta parte hartzea eskatu zieten.

Francesco Cilea

## ADRIANA LECOUVREUR

22, 25, 28 | Azaroak /  
Noviembre 202501 | Abenduak /  
Diciembre 2025
 Euskalduna  
Bilbao
Barraren salmenta  
Venta de entradasDESDE  
SOLO 26€ -TIK  
AURRERA

Laguntzailea / Colabora

GARA

ABAO | BILBAO  
OPERA